



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-03-06

VIIURTEA 1.646.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Manex Castro kartzelaratu egin dute eta Ertzaintzaren torturak salatu ditu

VILLABONA ETAKoa delakoan eman du agindua Eloy Velasco Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak

INKOMUNIKATUA Herenegun arratsaldean atzeman zuten Mikel Garmendia ere Ertzaintzaren esku dago 4



Atzo aurkeztu zituzten Oteiza omentzeko martxoan zehar antolatu dituzten ekitaldiak. ESTI EZEIZA

MARTXOA, OTEIZAREN IBILBIDEA EZAGUTZEKO HILABETEA

TOLOSA Artistaz gehiago jakiteko aukera izango da ekitaldi ugariarekin; gaur 'Oteiza, bizirako proiektua' erakusketa inauguratuko dute 3

Plan Orokorrari behin betiko onarpena eman dio Udalak

TOLOSA Gehiengo absolutuz zbabestua izan zen pasa den astearteko bilkuran testu bateratua; datozen 10-12 urteetan egingo da indarrean 5

Emakumearen Nazioarteko Egunean, ekitaldi ugari izango dira

LEITZA Bilgune Feministak antolatu du, 'Emakumeok gure gorputzaren jabe' lelopean 7

Udalaren aurrekontua adostu dute, 50.876 eurokoa izango dena

AMEZKETA Emango dituzten diru laguntzak ere finkatu dituzte 6



irabazlea:

• Erleta Eskola (Leitza)

Sarrerak Leitza
HITZAko bulegoan dituzu.

sarrerak

HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera ditu

BRUESA GBC
Club Baloncesto Murcia

IGANDEA
MARTXOAK 8 - 12:30
ILLUNBE

hitza
TXOKOA hitza

Bertsolar**hitza** ^{info} desafioa

1. saioa:
Ibarra vs. Alegia

Berto-Afariko sarrerak 15 euro
(Zubiaurre Tabernan, Atari Tabernan, Danon Txokoa Tabernan salgai)

Non: Ibarrako Gaztetxean
Noiz: Martxoaren 6, ostirala • 21:00etan

Antolatzailerak:
Tolosaldeko eta
Leitzaldeko Hitza
eta Gipuzkoako
Bertsotale
Elkartea.

Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

**Piñata igandeko kontzertua**

Pasa den igande honetan (Piñata igandea), bosgarren urtez jarraian, Tolosako Eduardo Moco-roa Udala Musika Eskolako Ikasleen Bاندak, konpartsa batean parte hartu zuen, alde zaharreko kaleak alaituz. Guztira, 80 bat ikasleek parte hartu zuten. Hauen artean, flautak, oboak, klarineteak, saxoak, tronpak, bombardinoak, tronpetak, tronboiak, tubak eta perkusio joleak ikusi genituen. Ilusio handiz hilabete askotan lan egin ondoren jende aurrean azaldu ziren. Musika Eskolako partetik, zorionak eman nahi dizkiegu, Piñata igandeko goiza alaitzeagatik!

Eduardo Moco-roa musika eskola

Non da Balza protokoloa?

Aurreko igandean, goizeko 3retan Manex atxilotu zutenetik ez da ezer jakin berari buruz, ez non zegoen, nola zegoen, noiz pasako zuen epailearen aurretik... Ez al zuen Ertzaintzak protokolo bat atxilutuei aplikatzeko? gaizki gogorazten ez banaiz, lau haizetara zabaldu zuten protokolo horren nondik norakoak, eta orain? zergatik ez dute aplikatu kasu honetan? egia



bakarra da, egoera honetan Manexek torturak jasateko aukera pila dagoela, ikusi besterik ez da egin behar, igandean Ertzaintzak zein jarrera zuen, bai 12:00etako prentsaurrekoaren aurrean eta baita arratsaldeko manifestazioaren aurrean. Utz ditzagun demagogia kaxkarrak eta aurre egin diezaiogun egoerari, hemen torturatu egiten da. Ez du balio giza eskubide guztien ezkutuan babestea, zeren une horretatik aurrera, torturatazaleei atek zabaltzen dizkiegu. Animo Manex! Zurekin gaude!

Bilabonatar bat.

Aingeru Epaltza idazlearekin solasaldia

Alegiko Aralar BHIko 2.mailako ikasleekin jardun zen, ikasleek irakurri duten liburua aitzakitza hartuta.

Aingeru Epaltza, 49 urteko iruñearra, herenegun izan zen gure ikastetxean. Ikasketaz kazetaria izan arren, Nafarroako gobernuan aritzen da, itzultzaile lanetan, bere afiziorik nagusia idaztea izan arren. Bi seme alaben aita da. Bere semea, futbol zale amorratua izanik (aita ez bezala) bere urtebetetzeko opari gisa idatzi zion liburua irakurri dute ikasleek: "Baloika". Liburu honetan, gazte talde batek futbolaren inguruan dituen bizi-penak kontatzen dira.

Idazle honek, hainbat liburu idatzi ditu, tartean baita antzerki entsegu bat ere. Irakurzaletasunik ez duenari zer aholku emango liokeen galdetuta, berak hainbat arrazoi eman zituen: liburu egokirik aukeratu ez izana... eta batez

B Blogteka**Gipuzkoako txapelkunak iraupen eskian**

Aurreko larunbatean Somporten jokaturako iraupen eskiko Gipuzkoako txapelketan Samaniegoko Manex Begiristain eta Ane Gorostegik 1. postua lortu zuten alebin mailan. eskolako kide guztien partetik

Zorionak bie!

Samaniego ikastetxea

<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/samaniego/>

Samaniego bertso eskola martxan

Otsailaren 10etik abian da Samaniegon bertso eskola. Eguerdiko ekintzen barruan Lehen Hezkuntzako ikasleei eskaintzen den aktibitateetako bat da; asteen ordubetez 12:30etik 13:30era astearte eta ostegunetan.

Une honetan 23 neska-mutil parte hartzen dute Aitzol Barandiaran bertsolari gaztearen eskutik.



ere, irakurtzen ez duenak «ez daki zer galtzen duen, irakurtzeak, amets egiteko aukera ematen baitu». Bere ustez, beti dago gustuko libururen bat, kontua aurkitzea da Aingeru Epaltzari inkesta:

- Pelikula bat: *La clase*.
- Kolore bat: Gorria.
- Janari bat: Arroza, baita kafes-netan ere.
- Kirol bat: mendia.
- Pertsona bat: nire aita zena.
- Animalia bat: Otsoa.

- Musika talde bat: Rollings Stones.

- Kirolari bat: Edurne Pasaban.

- Amets bat: Batzuk ez dira kontatzeakoak.

- Leku bat: Haran ibarra (Katalunako Pirineoetan).

- Zer hiru gauza eramango zenituzke irla batera: Liburutegi oso bat eta mendiko botak, ez dagehiago deus behar.

Aralar institutuko 2. DBHko ikasleak (Alegia)

K Kirol jarduerak**Gaur, ostirala****Areto futbol**

■ Usabalgo goiko kantxan, 20:30etik aurrera: Laskorain-Allerru.

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etan, nazioan mailan: Laskorain-Sasikoa.

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etan, junior mailan: Laskorain-Azitain.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30etik aurrera: infantilak; mutiletan: TAKE A- TAKE B. Ondoren, nesketan: TAKE B-Orioko.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etatik aurrera, kadeteak; nesketan: TAKE-Zarautz. Mutiletan, TAKE Tovar-Internacional B eta ondoren, TAKE B-Erroibide.

■ Usabalgo goiko kantxan, 16:00etatik aurrera, junior mailan: TAKE-Hernani.

Mahai tenisa

■ Usabalgo gym-ean, 16:30etik aurrera mahai tenisa.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, infantil ohorezko mailan: Tolosa CF-Zarautz.

■ Usabalgo futbol zelaian, 12:30ean, kadeteak: Tolosa CF-Alaves.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, jubenilen ohorezko mailan: Tolosa CF-Beti Gazte.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:00etan, jubenilen lehen mailan, Amoro-Lasarte.

Bihar, larunbata**Futbola**

■ Berazubi futbol zelaian, 16:30ean Gazteen nazional maila: Tolosa CF-Arenas.

Etzi, igandea**Futbola**

■ Berazubi futbol zelaian, 16:30ean Gorengoen maila Tolosa CF-Real Union B.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, alebinak: Tolosa CF-Zarautz.

Areto futbol

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, lehen mailan: Tolagianoeta.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Oteiza artista omenduko du Tolosak martxoan, hainbat ekitaldirekin

Kultura » Gaur inauguratuko dute 'Oteiza, bizirako proiektua' erakusketa; bestalde, mahai-ingurua izango da.

ESTI EZEIZA

Jorge Oteiza artistak Tolosarekin izan zuen lotura gogora ekartzeko eta zabaltzeko asmoz, hainbat ekitaldi eta jarduerak gauzatu dituzte datozen asteetan. Ekimen hau Udalak Jorge Oteiza Fundazio Museoarekin elkarlanean jarri du martxoan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Alde batetik, artistaren ibilbidea jorratzen duen erakusketa gaurtik martxoaren 29ra arte ikusi ahal izango da Aranburu jauregian.

Oteizaren eskulturaren bilakera berrikustez gain, arkitekturara eraman zuen espiritu esperimentatzailea, bibliografia zabala, poesia produkzioa edota gizarte eta kultur suspertzaile gisa artistak bete zuen eginkizunari buruzko erreferentziak ere eskaintzen ditu erakusketak.

Oteiza. Bizirako proiektua jaio zela ehun urtebetetzen diren artista siogile eta gizarte eragilearen ibilbidea jasotzen duen erakusketa, Zarauzko Arte eta Historiaren museoan izan zuen abiapuntua. Orion, Azkoitia, Eibarren eta Arrasaten ere, eskulturaren, arkitekturaren zein poesian XX. mendeko artista honen izandako bilakera gutxi ezagutu ahal izan dute.

Bestalde, gaur Oteizaren lagunen arteko mahai-ingurua izango da udaletxeko batzar aretoan. Ekitaldian 19:00etan hasiko da, eta bertan izango dira Iñaki Epelde, Ricardo Ugarte, Julia Otxoa, Jose Ramon Anda eta Juan Pablo Huercanos. martxoaren 7 eta 14an bisita gidatuak egin ahal izango dira eta performance baterako ere parada izango da, martxoaren 28an, hain zuzen ere.

Oteiza eta Tolosa

Jorge Oteizak sortutako hainbat eskultura-lan Tolosako herri ondarearen osagarri dira. Bi dira, zehazki, udalerriko espazio publikoan kokatuta dauden eskultorearen lanak: Atauts, Trianguloan kokatua eta Txabi Etxebarrietari omenaldia (Pare mugikorra), Benta Haundin jarria dagoena. Bataren zentratutasuna eta bestearen eszentrikotasuna eskultura-dinamika berezian eta osagarrien ondorio dira, eta espazio publikoan kokatzeko egindako arte-instalazioa ulertzeko era desberdinen ondorio ere bai.

Bi piezak 1994. urtean kokatu ziren udalerrian, eta Tolosako Ekinbide Etxeak sustatu zuen Euskal Eskultoreen ibilbidea sortzeko



Atzo aurkeztu zituzten Aranburu Jauregian, ekimenaren inguruan antolatutako ekitaldiak. E. EZEIZA

» OTEIZA TOLOSAN

Martxoak 6, gaur

■ **19:00.** *Oteiza bere lagunen orimean* izenburupean, mahai-ingurua izango da udaletxeko Batzar Aretoan. Bertan parte hartuko dute Iñaki Epelde, Ricardo Ugarte, Julia Otxoa, Jose Ramon Anda eta Juan Pablo Huercanosek.

■ **20:00.** *Oteiza, bizirako proiektua* erakusketa inaugurazioa Aranburu jauregian.

Martxoaren 6tik 29ra

■ **'Oteiza, bizirako proiektua'.**

proiektuaren osagai dira. Orain, artelan hauen maketa orijinalak ikusgai daude Aranburu jauregian.

Erakusketarekin batera ikus-entzunezkoak

Hiru dokumental ezberdin ikusteko aukera ere izango da Aranburu jauregian. Batetik, Tolosako Ekinbide Etxean 2007an egindako *Herriarentzat eskulturak*. Hau TEEK Tolosako Euskal Eskultura Garaiakidearen inguruko erakusketa iraunkorari buruzko lana da. Bestetik, Jon Intxaustegiren *Fragments* lana izango da ikusgai. 1992an burutu zuen dokumental hau eta Oteizarekin berarekin egina da. Artistaren pentsaera eta izaera ezagutzeko aukera ematen du. Azkenik, Fernango Golvanok iaz ekoiztutako *Laberinto Oteiza* izango da ikusgai. Koldo Mitxelena Kulturuneak egindako lan honetan belaunaldi ezberdinetako artisten arteko elkarriketa baten zi-

erakusketa ikusgai dago. Orduetegi berezia izango da. Asteartetik ostiralera eta igandetan, 17:30etik 22:30era. Larunbatetan berriz, 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 20:30era.

■ **'Oteiza Tolosan'.** Egun hauetan, atal berezi bat egongo da izenburu honen pean. Bestalde, ikus-entzunezkoak ere izango dira: Jon Intxaustegiren *Fragments*, Fernando Golvanoren *Laberinto* eta Tolosako Ekinbide Etxearen *Herriarentzat eskulturak*.

Dokumental saioa Leidorren

Nafarroako Unibertsitate Publikoko, Jorge Oteiza Katedraren egileak bi urtez burutu zuen ikerketaren emaitza da Leidor antzokian hilaren 27an ikusgai izango den lana. *Oteiza y el centro cultural Alhondiga. Proyecto estetico para la ciudad de Bilbao* du izena Iskandar Rementerik ekoiztutako dokumentalak.

Orokorrean ikusita, Jorge Oteiza, eta Francisco Javier Saenz Oiza eta Juan Daniel Fullaondo arkitektoak, 1988an, osatutako Kultur Zentruaren dimentsio ezberdinetan oinarritzen da ikerketa hau, eta bereziki, Jorge Oteizaren hiriarikiko pentsamendu estetikoan.

Dokumentala lehenengo aldiz emongo da zinean, Zinebi Bilboko Zine Dokumental eta Laburretraia Nazioarteko Zinemaldiko az-

Martxoak 7 eta 17, larunbata

■ **19:30.** *Oteiza y el proyecto de la Alhondiga* izeneko dokumentala ikusteko aukera izango da Leidor antzokian. Iskandar Rementeria da egilea.

Martxoak 28, larunbata

■ **11:00etatik 18:00etara.** *Atauts, artea artearen gainean* izenburupean, performancea egingo dute, GKO Galleruren eskutik, Triangulo plazan.

ken edizioan estreinatu ostean. Leidorreko saioa doakoa izango da.

Gazteria sailak ere bat egin du ekimenarekin

Triangulo plazan kokatuta dagoen Atauts eskultura oinarri hartuta, GKO Galleryren eskutik Performance-a egingo dute. Eskultura mihise modura erabiliko du euskal artista gazteek osatutako talde batek.

Jorge Oteizaren bizitzan eta lanean oinarritutako diren lanak burutuko dituzte hilaren 28an, Trianguloan bertan, eta piskanaka Oteizaren Atauts eskultura lan horiekin estaliko dute, guztiz eraldatu arte.

Artistari omenaldia eskaintzeaz gain, Street Art-a edo kalean egiten den artea aldarrikatu eta ezagutzarazi nahi dute gazte hauek proposamen honen bitartez. Performance-a ikusgai egongo da apirilaren 11ra arte.

Medicumundi hiesarekin amaitzearen beharraz ohartaraziz

Gizartea » Elkarteak antolatuta gaur zabalduko dute 'Hiesa: 8 artista, 8 hausnarketa' erakusketa.

ERREDAKZIOA

Gaur arratsaldean inauguratuko dute Medicumundi elkarteak antolatutako *Hiesa: 8 artista, 8 hausnarketa* erakusketa. Aranburu jauregian ikusgai egongo da hilaren 21a bitartean. Ekimen honetan zortzi artistek hiesak pertsona txiroengan eragiten duen errealitatea deskribatzeko lengoia berriak erabiliz.

Erakusketaz gain, Medicumundi Gipuzkoak hainbat ekitaldi antolatu ditu, jendea hiesarekin amaitzeko irtenbide globalak hartzearen beharri buruz sentsibilizatzeko. Tolosako biztanlego-erengana eta bereziki ikasleei helarazteko asmoa du, batez ere, nerabeei. Hala, hauei zuzenduta proiektuak eskainiko dituzte.

T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutz Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Manex Castrok Ertzaintzaren torturak salatu ditu inkomunikazio garaian

Villabona » Epaileak Soto del Real espetxean sartu du billabonatarra; Ertzaintzak Mikel Garmendia ere inkomunikatuta du.

ERREDAKZIOA

Eloy Velasco Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak Soto del Real kartzelara bidali zuen atzo Manex Castro billabonatarra, ETako kidea delakoan. Honak 5 egun egin ditu Ertzaintzaren esku atxilotuta, inkomunikatuta, eta atzo bertan salatu zuen ertzainek torturatu egin dutela, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) dioenez. Bere laguna den Mikel Garmendia billabonatarra ere atxilotu zuen Ertzaintza herenegun arratsaldean eta ordudik inkomunikatuta du EAeko polizia.

AAMk Castroren inguruan azaldu duenez, «atxilotetan eta hasierako unean kolpeak eta bultzadak eman zizkieten, mehatxuak etengabeak izan dira, tartean haren amari eta lagunei buruz mehatxu egin diote, bere inguruak atxilotuak zeudela esan diote, Guardia Zibila eskuetan utziko zutela... Postura behartuetan eduki dute, ertzainak gainean esertzen zitzaizkion esaterako, ez diote lo egiten utzi behartutako deklarazioa egin duen arte...». Konfiantzako abokatuari esan zioen hori dena Castrok.

AAMren arabera, Castrok hasiera batean uko egin zion deklarazeari, «baina egoera jasagaitza egin zitzaion eta beharturik deklarazioa egin du. Ertzaintzak behartu du horretarako». Epailearen aurrean dena ukatu duela diote AAMtik «eta adierazi du mehatxu



Manifestazioaren aurretik batzarra egin zuten plazan Garmendiaren eta Castroren egoeraz informazeko. IMANOL GARCIA

eta presioak bultzatuta egin duela deklarazioa poliziala».

AAMk Balza sailburuaren dimisioa eskatu du, «Manex Castrok jasandako torturen arduradun politikoa delako». Ertzaintzak «berriz ere euskal herritar bat torturatu izana larritasun handiz» hartu dute eta argi dute horren atzean «EAJren erabaki politikoa dagoela. EAJk erabaki du Ertzaintzak berriz tortura erabil dezatela».

Ibarretxe eta Urkulluri galdetu diete PSOeri proposatu dioten «akordio handi horrek bere egiten duen torturaren erabilera, eta gaurtik aurrera berriz ere ertzainak guardia zibil eta espainiar poliziaekin batera euskal herritarrek sistematikoki torturatuko dituzten». EAJ boterean mantentzeko

«PSOeri egiten ari den eskaintza» dela dio AAMk.

Inkomunikazioa eta torturaren aurkako lotura «ezin ageriago» gelditu dela berriz ere diote. «Ertzainek inkomunikazioa aplikatu ez dutenean ez da inolako tortura salaketarik egon, eta 3 urteren ondoren lehen aldiz inkomunikazioa erabili dutenean tortura kasu baten aurrean aurkitzen gara», nabarmendu dute.

«EAJk eman duen urratsaren larritasuna» azpimarratu du AAMk. Aste honetan bertan 15 guardia zibil epaitzeko erabakia eta orain hiru aste NBEaren begirale batek inkomunikazioaren eta torturaren gainean Espainia ohar-tarazi duela gogorarazi dute. «Hipokresia galanta da Eusko Jaurila-

ritzak Portu eta Sarasolaren tortura kasuak ikertzeko eskatu duten aste berean beraien poliziak euskal herritar bat inkomunikatu eta torturatu», gaineratu du AAMk. «Hipokresia galanta da beraien protokoloak eredu garrantzatu jo eta nahi izan dutenean bost eguneko inkomunikazioa erabiltzea».

Iñigo Lamarka Arartekoaren jarraera ere salatu du AAMk. «Atzo Manexen senideei ziurtasun osoz adierazi zien Manexek tratua egokia jasoko zuela, baina bera hori esaten ari zen bitartean ertzainak Manex torturatzen ari ziren», zehaztu dute. Lamarkak gaineratu zuenez, atxilotua Deustun edo Arkaute inguruko zen, bertan daudelako kamarak ongi egokitua, AAMk azaldukoaren arabera.

«Baina Manex Oartzungo komisaldetegiaren edukidute. Hemen kamararik ba ote dagoen galdetzen dugu guk eta hala bada erakutsi ditzatela gaur bertan atxilotu diren irudiak».

Velasco epailearen ustez, Castrok urtarrilaren 16an Hernanin (Gipuzkoa) ETak egindako atentatuaren parte hartu zuen, baita otsailaren 23an Lazkaon (Gipuzkoa) egindakoan ere. Hernanin Santa Barbara auzoan telebista hedagailuaren aurka bomba lehertu zuen erakunde armatuak eta Lazkaon PSE-EEko egoitzaren aurka. Herrerriango Sailetik azaldu dutenez, lehergaiak topatu zizkieten etxebizitza baten miaketan. Castrok ukatu egin du eraso haietan parte hartu zuela.

Garmendia, inkomunikatuta

Ertzaintzak herenegun arratsaldean Castroren lagun bat atxilotu zuen Villabonan: Mikel Garmendia. Ordudik inkomunikatuta dute. Baliteke asteburuan eramatea epailearen aurrera.

Zuten arratsaldean batzarra egin zuten hainbat billabonatarrek bi herritarren egoeraren inguruan eta ondoren manifestazioa egin zuten 250 lagun inguruk, *Manex eta Mikel askatu* lelopean.

Bestalde, gaur ez ohiko osoko bilkurara deitu du Villabonako Udalak 19:00etan. Bertan ezker abertzaleak mozioa aurkeztuko du. Mozioan, besteak beste, Manex Castroren eta Mikel Garmendiaren «bahiketa eta atxilotetako» salatzen dira. «Gogor salatzeko» inkomunikazioa, «tortura ahalbidetzen duela» eta «gogor salatu horatu duena, beste poliziaekin desberdinak zirela saldu nahirik, bertan behera utzi duenean 3 urteren ondoren, Manex eta Mikel torturatuak izateko arriskuan jarritz».

Gaur ere eskualdeko manifestazioa deitu dute. 19:30ean abiatuko da herriko plazatik.

Auzolanerako deialdia egin dute Anoetan

ERREDAKZIOA

Anoetako Kultur Astearen baitan, Udalak auzolanerako deialdia egin du. Bihar goizean izango da hori. Plazan geldituko dira 09:30ean. Laxarbe erreka eta honen inguruetako belaze zein basoak garbituko dituzte. Ondoren hamaiketakoa egongo da. Antolatzaileek diotenez, 16 urtetik gorakoa izatea gomendatzen da eta katiuska edo botak eta eskularruak eramatea.

Udal Ingurumen batzordeak auzolan talde baten sorrera suspertu nahi du. Joan den urteko udaberri aldera ekin zioten lan honi, eta lehen sektorearen egoera bertatik bertara ezagutzeko asmoz, lehen urratsa bailara desberdinetako baserriartekin elkarriz-



Ikastolako ikasle eta gurasoek atzo proiektzioa ikusten. I. GARCIA

ketatzea izan zen, dituzten kezka, beharrik eta proposamenak jasotzeko. Egitasmo honen nondik norakoak azaltzeko eta auzolanerako plangintza antolatzeko bilera

egin zuten abenduaren 17an udaletxean, eta hainbat herritar eta gizarde eragile desberdinetako ordezkari azaldu ziren. Hain justu, lehen ekimenari biharko izango da.

Bihar ere, 10:00etatik 11:00etara, erlaxazio saioa egingo dute euskaraz kiroldegian. Beste ekitaldia 18:00etan izango da, *Ino, Ino, Ino... badator Bonbardino* ikuskizuna Ane Monna, Oskola eta Karramarroi taldearekin eta Galtzaundiren eskutik.

Gaur ere izango dira ekitaldiak. Zuhaitz Eguna izendatu dute eta 15:30etik 17:00etara LH5 eta LH6ko ikasleek zuhaixkak landatuko dituzte Iturtzulon. 22:00etan *Ezker-Eskuma* antzezlanak Glu Glu taldearekin udal areto nagusian. Atzokoan, Anoetako Ikastolako maila ezberdinetako ikasleek Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan ladutakoa erakutsi zuten.

Laburrak

Zuhaitz landaketak egingo dituzte gaur goizean

ALEGIA » Zuhaitz Eguna antolatuta dute gaurko ALEGIAN. Langurren zein herrian zehar egingo dituzte ikasleek zuhaitz landaketak. 10:00etan bildu ondoren ekingo diote herrian zehar landaketak egiteari eta 11:00k inguruan Langurren ariko dira.

Fleming esparruko 69 garaje-plazak salmenta

VILLABONA » Villabona Lantzen S.A.k Fleming esparruko lurpeko 69 garaje-plaza saldu nahi ditu lehiaketa bidez. Lehiaketa parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea hilaren 18an amaitzen da eta udaletxean egin behar da.



Ezker Batuarena izan ezik, gainontzeko alderdien babesja jaso zuen Hiri Ordenazioko Plan Orokorrenaren testuak. E. EZEIZA

Plan Orokorrari behin betiko onarpena eman dio Udalak

Politika » Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren testu bateratua gehiengo absolutuz babestua izan zen astearteko bilkuran.

ESTI EZEIZA

Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren testu bateratuari behin betiko onarpena ematea aho gehiengo absolutuarekin erabaki zuten aste honetan egindako Osoko Bilkuran. Ezker Batua izan zen testuaren aurka bozkatu zuen bakarra, gainontzekoek oniritzia eman zioten.

Ohikoa den bezala, aurreko aktak onartuz eman zioten hasiera batzarrari. Ondoren, Hiri Ordenazioko testuaren azalpenari ekin zioten. Hau, datozen 10-12 urteetan egongo da indarrean. Honek adierazten du, bertan agertzen diren proiektu asko epe laburrean gauzatzeko badira ere, beste batzuk aurrerago egingo direla.

Azkenik, urjentziatzeko gai bezala, martxoaren 8a, Emakumaren Nazioarteko Eguna dela eta, mozio bat onartu zuten. Honek, Eudelek idatzitako testua zuen oinarri eta krisi ekonomikoa zuen ardatz. Izan ere, testuak agertzen zuten, emakumea izango dela ziu-rrenik arazo hau gehien pairatuko duena. Mozioa aho batez onartua izan zen.

Plan Orokorraren zenbait ezaugarri

Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren zuzentzeaz Mikel Iriondo arduratu da. Bertan aztertzen den puntuetako bat etxebizitzena da. Bertan, 2.104 berri egitea aurreikusten da. Hori etatik 178 jada eraikita daudenak dira, baina berkolokatzeara espero direnak. %59,58a babestua izango dira, eta %40,42 askeak.

Ekipamenduekin inguruan ere hainbat proiektu daude, hor sartzen dira, Asuncion Klinikako aparlekuak, Berazubi, To.pic, Au-

zoetako ekipamenduak, Haur-eskola berria...

Jarduera ekonomikoetarako 107.850 metro koadro bideratuko dituzte. Hori etatik 63.050 Aparta-Errakan, 24.800 Usabalen eta 10.000 Olarrainen.

Espazio libreei dagokionean, hainbat gune mantendu eta birgaituko dituzte. Tarteetan, Arkaute, Zumardi Txikia, Zumardi Handia, Zabalarreta, Elozegi eta Iurreamendi.

Komunikazio bideei dagokionean, hainbat egitasmo daude datozen egunetarako: hiriko sarre-rak hobetzea, Asuncion Klinikako sarrera, oinezkoentzako zubi berriak, auzo etako irisgarritasuna hobetzea, bidetegiak, Uzturreka-lea irekitzea.

Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren testu bateratuari behin betiko onarpena eman ostean, plan bereziak (Auzo etakoak esaterako) idazten hasiko dira, eta Ordenantzak (orokorrak, etxabeak, teila-tuak, ostalaritzakoa...).

TAKeko neskak garaile izan dira berriro ere batelen ligan

Arrauna » Sokoan jokatu zituzten joan den asteburuan estropadak; 3. jardunaldiaren ostean, lider dira sailkapenean.

ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean batelen liga-ko hirugarren jardunaldia jokatu zen Sokoan. Bertan, TAKeko neskak garaile izan ziren.

Haize asko ibili zen eta honek boga zaildu zuen. Itsaso irekian, sei kale zeuden lehiatzeko. Maialen Azaldegi, Olatz Ortiz, Irati Larra-

ñaga, Naroa Urkola eta Irati Ozaitak osatzen zuten Jubenil-seniorren batelak lan bikaina egin zuten, eta garaipena erdietsi zuten. Maila bereko B taldeak laugarren postua eskuratu zuten, besteek baino 7 segundo gehiagorekin. Infantil-kadete mailako neskak ere ongi aritu ziren eta hirugarren iritsi ziren helmugara. B taldekoak berriz, zazpigarren.

Mutiletan, azpimarratzekoa da infantil Akoek lortu zuten hirugarren postua. Kadeteak laugarren geratu ziren eta jubenilak, hiru eta bosgarren. Infantil Bkoak bestalde, 10. geratu ziren.

Hirugarren jardunaldi honen ostean, sailkapen orokorrean, TAKeko batelen bat badute sailkapeneko goiko postuetan. Nesketan, infantil-kadeteak hirugarren daude, eta jubenil-seniorrek berriz, lehen eta hirugarren postuak okupatzen dituzte. Mutiletan, infantilak hirugarren daude, kadeteak laugarren eta jubenilak, hiru nahiz bosgarren.

Tolosaldeko Arraun Klubekoek eta estropadak gustuko dituzternek, Mutrikun dute hurrengo hitzordua. Bihar bertan izango da, 16:00etan. Itsaso izango da protagonista berriro ere.

Laburrak

'Camino' filma ikusgai izango da gaur eta bihar

KULTURA » Asteburu honetan zinema izango da protagonista Leido-rren. Dena den, proiektatuko diren film guztiak emakumearekin izango dute harremana. Hasteko, gaur 22:30ean Javier Fesser zuzendaria-riaren Camino filma izango da ikusgai. Bihar berriz, 17:00etan, euskarazko film bat: *Bonkers*. 19:30ean berriro Camino emango dute, eta 22:30ean, Roser Aguilarren *Lo mejor de mí*. Egile beraren *Cuando te encuentre* ere ikusgai izango da.

Q saria banatuko dute astlehenean, Laskorainen

KULTURA » Laskorain ikastolak Urrezko Q saria irabazi du. Honen bestez, astlehenean sari honen banaketa ekitaldia burutuko dute Ikastolako Aretoko Nagusian. Ekitaldi honetara, Ikastolako kideez gain Ikastolarekin harremana duten erakundeak gonbidatuta daude. Bihar berriz, 17:00etan, euskarazko film bat: *Bonkers*. 19:30ean berriro Camino emango dute, eta 22:30ean, Roser Aguilarren *Lo mejor de mí*. Egile beraren *Cuando te encuentre* ere ikusgai izango da.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Santio Zaharra

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobiatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Urdaira Tel.: 943 372 691 Aginaga-Usurbil
Urdaira baserria

Otatza Tel.: 943 801 757 Zerain
Otatza baserria

Urbartarte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta
Iturrioz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagartza baserria www.rzabala.com

Aburuza Tel.: 943 692 452 Aduna
Goiburu auzoa, Olatza etxea

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebailara auzoa

Zalbide Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa
Zalbide baserria

Eguzkitza Tel.: 660 654 317 Tolosa
Usabal auzoa, 25

Erreka Tel.: 948 510 625 Leitza
Erreka auzoa

DIEZ Autobusak

Autobusak eta estropadak martxoaren 6an
Ereñozu auzoan
Martxoaren 6an, 16:00etan
Mundakal kalea, 24 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20013 DONGOSTIA
Pasaia 20013/20014/20015/20016/20017/20018/20019

Aurrekontuak adostu dituzte, guztira 50.876 euro

Amezketak » Aralar paper fabrikarekiko kexek erantzuna jaso dute, «Eusko Jaurilaritzarekin itun bat duela» esanez.



Amezketako erreka zikina ikustea ohikoa da. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Amezketako azken ohiko bilkuran Errotazarreko obraren esleipenaz aritu ziren. Errotatza eraberritzeko obrarako Baldintza Pleguak onartu ondoren, Sagastume Zaharberri gintzari esleitu ko zaito obra 48.167,38 euroren truke. Bestetik, 2009 urterako herriko eta kultur eragileen diru laguntzak banatu zituzten. Laguntzaren bigarren zatia (%50) urteko gastuaketa balantzeak ekarritakoa emango zaie. Guztien aldeko botoekin onartu egin zituzten.

Guztira 50.876 euroko diru laguntza banatu du Udalak, hainbat elkarrekin artean.

Enirio-Aralarko kudeaketaz

Enirio-Aralarko Mankomunitatearen pagadiari dagokion zuhaitziaren gaineko eskubidea esku bakarrean jartzeko akordio proposamena egin zuten ere. Eskrituren bitartez, zuhaitzia banatu egin zen eta hainbat zonalde, lote edo zati bereizi ziren, baso ustiapena Enirio-Aralarko Mankomunitatea osatzen duten hamabost herriek eratu eta bi elkarrekin artean banatzeko.

Eremua lursailetan banatuta egoteak «asko zailtzen du» baso horien kudeaketa bateratua. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako Zerbitzuak 1994. urtean balorazio ikerketabab agindu zuen, pagadiaren balio osoa eta hamabost herri horietako bakoitzari dagokion zuhaitziaren gaineko eskubideen portzentajea kalkulatzeko. Portzentaje horiek Mankomunitatearen Batzarrak eta udal bakoitzak onartu zituzten: Amezketak %17,83, Abaltzisketa, %13,71, Orendain %6,66, Balarra %3,33 eta Ikaztegieta %3,33.

Aurreakordio bat egin zen: zuhaitziaren gaineko eskubidea esku bakarrean egonez gero, uda-

lerri bakoitzari %6,66a legokioke eta, horregatik, aurreakordio horren arabera, %6,66tik gorako zuhaitziaren gaineko eskubidea duten udalerriek aldea ordainduko litzaie.

Amezketaren kasuan, bere lur-sailek zuhaitziaren gaineko eskubide osoaren %17,83 egiten dute eta, beraz, %11,17 ordaindu beharko litzaioke. Kontuan izanik Enirio-Aralarko Mankomunitatearen 600. urteurrena ospatuko dela, «memento egokia da duela 200 urteatik datorkigun 15 udalerrri gipuzkoarren arteko gatazka konpontzeko».

Paper-fabrikaren erantzuna

Papel Aralar SAri buruzko kexen erantzuna. Errekaren egoera txarra zela eta, bereziki udan, bi kexa hartu ondoren, papelerako nagusiekin egon zinen gai honetaz hitz egiteko. Bileran, zehaztasun gehiagorekin, erantzun hau izan zuten: «Isurketa gehienak axolagabekeria baten ondorioz izaten dira. Isurketa bera, nahiz deigarria izan (aparra, kolorea...) berez kalterik gabekoa da, ez du kutsatzen, paper hau elikagai eta medikuntzarako erabiltzen denez, ezin du kutsatzeko osagairik edukiri».

Hitzarmen bat izenpetuta dauka Eusko Jaurilaritzarekin, neurri batzuk hartzekotan, isuri gutxiago izateko. Alde batetik, fibra erreku-

peratzeko sistema bat jarri, era horretan gutxiago depuratu eta gutxiago isurtzeko. Hasita daude lanak eta 2010ean bukatzea aurreikusita dago. Bestetik, 900m3ko lantzea homogeneizatzeko eta larrialdietarako, depuradoraren aurrerik, nahi-gabeko isurketak hartuko dituenak. Hasita dago lan hau, 2010an bukatzekotan.

D3M mozioa onartuta

D3M eta Askatasuna hautagai-zerrendan jarduna etetearen aurrean mozioa aurkeztu zuten eta denon aldeko botoekin onartu egin zuten. Mozio hau, Altzon ere onartu zuten, aldeko lau botoekin eta EA Jren hiru abstentziorekin.

«Ezker abertzalearen aurkako legez kanporatze estrategia eta errepresiorik basatienarekin erantzun diote bai Espainiar Estatuak bai Frantziar Estatuak». Helburua, mozioak jaso bezala, «aldaketaren motorra, ezker abertzalea, ahalik eta gehien ahultzea, politikoki eragiteko ahalmenik gabe uztea da».

Espainiar estatuak helburu horri jarraiki «jauzi kualitatibo berria eman du, hautesle zerrenden aurkako operazio juridiko-poliziala burutu du». Ondorioz, «euskal herritar batzuk espeteratu, atxilotu eta prozesatuak» izan dira. «Alderdi Politikoen legea erabiltzen dute herri honen eskubideak ja-

» DIRU LAGUNTZAK

- Guraso Elkarteak. 1.000 euro.
- Musika eskola. 1.033 euro.
- Pilota eskola. 4.133 euro.
- Bertso eskola. 1.000 euro.
- Jaiak. Bartolome deuna eta Kultur Asterako 36.000 euro.
- Ugarteko jai batzordea. 5.250 euro.
- Galtzaundi. 450 euro.
- HITZA. 1.000 euro.
- KMK 09. 60 euro.
- Nafarroa Oinez. 225 euro.
- Herri Urrats. 225 euro.
- Korrika. 500 euro.

zartzeko. Alderdi politikoen jarraitza lortu da.

Guztia kontuan hartuta, honako mozioa onartu zuen Udalak: «Oso larritzat» jotzen du espainiar estatuak hautagai zerrenden jarduna etetearen erabakia. «Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza da eta independentzia helburu duen herri sektore zabala kriminalizatzea du helburua».

«Azken aste hauetan espeteratu, atxilotu eta prozesatuak izan diren euskal herritar guztiak» elkartasuna adierazi nahi die eta «euren askatasuna exijitzen dugu». Martxoaren 1eko hauteskundeak salbuespen egoeraren baitan egin zirela salatu zuten. «Udal honek gure herriak urgentziaz zatiketa, ukazioa eta menpekotasunaren marko honetatik, marko demokratiko baterako transizioa egin behar duela adierazten du». Marko demokratiko horrek «Euskal Herria nazio gisa aitortzeaz gain, egungo zatiketa gaindituz, subjektu erabakitzailea artikulatu behar du, euskal herritarrek proiektu politikoki guztien artean, independentziaren barne, erabakitze eskubidea izan dezaten».

Euskarako ikasleen inguruan

Kultura gizarte zerbitzu eta ingurumen batzordeak jakitera eman zuten, euskaraz ikasten ari direnek adierazi zuten hasiera batean ordu eta erdiko klaseak eskaini zitzaizkiela eta hiru ordu laurdenekoak jasotzen dituztela. Hau «euskara maila ezberdina zutelako gertatu da». 0 maila dutenek «oso gutxi dela» beraientzako esan dute. Batzordean erabaki da klasea luzatzea «irakasleak posible badu». Honela geratu da: 0 maila dutenek ordu eta erdi eta besteak ordu bete.

Asteburuan Euskadikoa, Berria eta Udaberri Txapelketak

ERREDAKZIOA

Lehenengo astean Zazpi-Isturriko pilotariak Euskadiko finalerdiak eta «nahiko ondo ateratzen direla esan behar». Kadeteetan kanporaketari buelta ematea lortu zuten Gallurralde-Jakak Astigarrakoen kontra eta bihar 11:00etan neurritako dira Etxarriko pilotarien kontra Gasteizko Txukun Lakua frontoan.

22 urte azpikoetan joanekoan baino errazago irabazi zieten Irurtzungeoi eta gaur Amurrioren jokatu diren finalerdiak sailkatu dira Ropon-Leunda. Añorgakoei irabazi beharko die txapela nahi badute behintzat.

Nagusien Ohorezko mailan, aurreko astean Amezketan 19 tanto egin ondoren galduta bazuten, bueltako era 17n galduta zuten Beotibarren, Renobales-Galarragaren aurka Elurbe-Arzelusekin.

Beraz, ez da marka txarra, hirutik bi finalera sartzea. Orain, Arabako emaitzak itxaron beharko dira.

Aurrera-Saiaz Berria, bihar

Bihar, Aurrera-Saiazko pilotariak Berria Txapelketan ariko dira 10:30ean hasita, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Areriko gogorra dute biharkoa, Huarte. Ohi bezala, kadete, jubenil eta seniorren arteko izango da. Labaka-Arratibel, Sukia-Zinkunegi eta Onsalto-E. Galarraga kantxaratuko dira bihar, hurrenez hurren.

Gaur, berriz, Aurrera-Saiazko pilotariak Bidanian ariko dira, kadete eta jubenilen mailan, beti ere binaka eta 19:00etan hasita.

Albizturren asteartean, bular minbiziaren aurre detekzioaz ariko dira

ERREDAKZIOA

Datorren asteartean, Katxalin Bularreko eta Ginekologiako Minbiziaren Emakumeen Elkarteak antolatuta, minbiziaren detekzioaz ariko dira 17:00etan, Albizturko Kultur Etxean. Bularreko minbiziaren detekzioari gero eta garrantzi gehiago ematen zaio, eta honi buruz ondo informatuak egotea funtziozkoa da gauzaintzat.

Hitzaldia Donostiako Onkologiako Institutuko Doktorea den Arrate Plazaolak emango du. Bertan, bular minbiziaren arrazoen azterketaz, tratamenduaz, prebentzioaz, eta abar hitz egingo da.

Donostia aldeko banaketa enpresa batek ADMINISTRARI-KOMERTZIALA lanpostua bete behar du

Lanpostuaren funtzio nagusia, lan komertzialak egiteaz gain, banaketa koordinatzaileekin elkarlanean kanpainak banaketa antolatzea eta haien jarraitzea egitea izango da.

Eskaintzen da:

- Urte amaiera arteko kontratua (luzatzeko modukoa).
- Egun osoko lanaldia.

Eskatzen da:

- Administrazio eta merkataritza arloko ezagutzak.
- Bulegotika programen ezagutza, erabiltzaile mailan.
- Izaera dinamikoa eta haren mantentzeko erantzuna.
- Antolaketa gaitasuna.
- Gida baimena eta autoa izatea.
- Lan komertzialen eskarmentua izatea baloratuko da.

Curriculum vitae zehatza bidali martxoaren 10a baino lehen: gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo Jarduna SM (Giza Baliabideak SAILA) Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain helbidera

Ez ahaztu erreferentzia zehatza ADMINISTRARI-KOMERTZIALA (Erreferentzia: 09-ET-KOM)



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

'Emakumeok gure gorputzaren jabe' aldarrira zabalduko dute Leitzan

Martxoak 8 »

Emakumearen Nazioarteko Egunarekin batera ekitaldi ugari antolatu dituzte Leitzan.

ASIER IMAZ

Bilgune Feministak egitarau zabaldu du Leitzan Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan, IA, Gazte Asanblada, Leitzako Kultur Elkarte eta Torrearren laguntzarekin. Gaurtik igandera *Emakumeok gure gorputzaren jabe* leloa lau haizetara zabalduko dute herrian. Bestalde, bihar egiteko azen Mila Aierberen hitzaldia, bertan behera geratu dela jakinarazi dute antolatzaleek.

Oharrak: Ugarten eta Alegian

Ugarten bazkaria 14:00etan Ugarteneko Elkartearen egingo dute. Gokioetxearean soilik izen-ematea egin behar da. Alegian berriz, orain arteko egitarauari beste baterantsi diote: gaur 20:00etan elkarretaratzea egingo dute plazan Udalak deituta.



laz besteak beste bizikleta martxa egin zuten Leitzan Emakumearen Nazioarteko Egunean. ESTI EZBIZA

» EGITARAUA

Martxoak 6, gaur

- **19:30.** Arantxa Agirreurretaren liburuaren aurkezpena liburutegian: *Simone de Beauvoir, emakume libre baten istorioa*.
- **21:30.** Atekabeltzen 4 meses, 3

semanas y dos dias filma.

- **Ondoren.** Kafe tertulia.

Martxoak 7, bihar

- **14:00.** Parekidetasunaren Aldeko Bazkaria Atekabeltzen.

- **Arratsaldean.** Triki poteoa eta afari-merienda Torren.

Martxoak 8, etzi

- **12:00.** Manifestazioa Leitzako plazatik iritenda.

Laburrak

Medikuaren kontsulta asteartean

ARESO » Anbulategian medikuaren kontsulta asteartero egongo da zabalik 08:00etatik 09:00etara. Txanda hartzeko, ordea, bezperatik deitu beharko dute aresoarrek ondorengo telefono zenbakira: 948 51 08 00.

Clint Eastwood-en azken filma ikusteko aukera

LEITZA » Zinean *El Intercambio* filma ikusteko aukera egongo da gaur eta etzi. Kritikak goraiatu duen istoria hau Clint Eastwood zuzendariaren azken lana da. Gaurko saioa 22:30ean hasiko da eta etzikoia 19:30ean.

Hilaren 13an Kantu Jira Aurrera elkartearen

LEITZA » Hilabeteroko legean Kantu Jiran elkarteko aukera berria egongo da hilaren 13an, ostiralean, 19:30ean. Aurrera Elkartearen bildu ohi dira hainbat leitzar, herriko musikariaren laguntzaz, euskal kantak abestuz. Kantu Jira egitasmoaren baitan Aurreran elkartzaren di-erenek herritar guztiei dei egin die- te, abestea gustuko duenarentzat atek zabalik dituztela aipatuz.

Gutunak

Nafarroan; TIL Ingelesak euskara xurruapatuko ote du?

TIL edo Hizkuntzen Trataera In-tegratua delako egitasmoak aspal-di honetan sortzen duen kezka kontuan harturik eta honek berak duen eta izan dezakeen garrantziagatik, iritzi ezberdinak mahai-gaineratzea ezinbestekoa ikusten dut, nahiz eta guztiak indar bera ez sortarazi. Honek, eztabaida zabal, luze eta iraunkor baterako, nahiko motiborik eman arren, ideia batzuk labor azaltzen saiatuko naiz.

Zenbaitetan epe laburrean mar-txan jarriko bada ere, nire inozen-tzi guztia onartzuz, egitasmo bat besterik ez dela, nahi nuke pentsa. Hau guztia aurrera eramanez ahal izateko arazo tekniko eta metodo-logikoaz gain, inplikatuak, hau da; Hezkuntza Komunitatearen kideon arteko onepena eta horretarako eztabaida, beharrezko ikusten dut. Dena den, eredu hau berritaz saldu arren, bere aztamak ingele-saren ezarpena edo British zerit-zan horretan du abiapuntua. Or-duan, ezarri nahi kontrako bozak zertxobait altxatu ziren edo geni-tuen, oraingo honetan «ezjakinta-sunaren» aitzakian isilago dara-magu guztia.

Duela gutxi irakur zitekeen Mundu Handi honetan datozen

urtetan, 2.500 hizkuntza eta hiz-kerak desagertzeaz zirela, epe ertain-batzuk, baina laburrean beste asko. Horien artean Euskara ere agertzen zen eta duela zazpi urte baino emaitza ilunagoak emanez. Horregatik, eukararen inguruan, egiten den guztiak, bai indartzeko, baita ahultzeko ere, garrantzia izu-garria du. Hizkuntzak elkarren ar-teko lehian ote daude? Lehian jar-tzen ditugu? Eleaniztasuna eta Hizkuntza bakar batzuen Nagusi-tasuna bateragarri ote?

Nik, Hezkuntza Eleaniztasu-n kokatzea ulertzen dut. Horre-zaz gainera, horren alde jarri eta pausoak eman behar direla garbi ikusten dut. Hizkuntza ezberdine-tan gaitasuna lortzea nahitaezkoa ikusten dut, gero eta dinamiko-agoa den gizarte honetan. Hala ere, onartu gabe ezin utzi, saltzen digu-ten eleaniztasunaren funtsa oso abstraktua dela; gizarte diglosiko honetan non kokatu hizkuntza ba-koitzaren funtzioa? Non? Zertara-ko? Eta beste hamaika galdera egin behar dira aurretik. Galderak egin eta eztabaida baten ondorioz, erantzun bateratua eman. Dena dela, jakina da, oso helburu ezber-dinak daudela tarteko.

Eztabaida sakon honen aurretik aipatu, Hezkuntza sisteman le-hentasunik ezarri edota finkatu behar direla. Behar dira. Hez-kuntza proiektua definitzerakoan,

zertan inbertitu behar dugun garbi izan behar dugu eta horretan luze irau, zerbait neurgarria lortu arte. Egun, Kalitatea (?), ikasle norbana-koaren kompetentziak, eta abar luze bat ezar dezagun agintzen ari dira. Eta aspalditik Europatik da-torren haizea dela medio zentroen edota erkidego, estatu edo nazioen arteko lehia dugu jokoan. Gehiegi ez al da? Eta Hezkuntza Komuni-tate bakoitzaren autonomia, non gelditzen da?

Orain, haize indartsu horren barnean, ingelesaren ezarpena go-gorazten eta inposatzen digute. Horregatik, hizkuntzaren edota hizkuntzen atala zabal bezain ko-rapilatsua gertatzen ari da. Hiz-kuntza bakoitza baliabide bat da, helburu bat lortzekotan, baina egoeraren arabera, helburu dira oinarria ezartzekotan. Beste modu batera esanda, norbanakoaren he-rrirarekiko identifikazio soziala eta afektiboa aurkitu nahian, oso urru-ti edo hobe esanda, bigarren mail-an ikusten dut ingelesaren bultzatu nahi den ingelesa hizkuntzaren bilakaera. Zalantza askoren artean bat; zein arrazoi objektiboak dau-de aurrerentzean ingelesak orain bezalaxe hainbat esparrutan hege-monía bereganatzen jarraitu duela esateko?

Globalizazioaren alde ilunetik ikusiz, elebarkar ez, baina hizkunt-za gutxi batzuen mende geratze-

ko arriskua ziurtatzen ari gara. Ezin ditugu honelako hizkuntza politika inposatzaileak onartu. Hezkuntza proiektuari herri izae-ria eman nahi diogunok, beste ata-len artean pentsa genezake, fran-tsesa ere, lehentasunetan hautazo-ko hizkuntza behar duela izan.

Dena den, nik garbi dut lehenta-sunezko ildo eta lana, euskaraz bizi ahal izateko tresnak eta baliabideak ezartzea dela. Honegatik, egungo egoera ikusirik, non ikaste-txeek «lektiboki» euskaraz fun-ktionatzen duten arren, toki asko-tan ez da euskalduntze prozesua ematen, ez da euskara normalta-sunez erabiltzea lortzen, premia-zkolana eta helburua ikusten da ho-rretan. Nahiko nuke egunikasleek, eta oro har herritar guztiok, gizar-tearen leku eta esparru ezberdine-tan, herritar gisara euskaraz bizi-tzeko ahalmena eta gaitasuna lan-ritzeko. Honegatik TIL honek, eztabaidatu eta onartu gabeko egi-tasmoak ez du gizartea euskaldun-tzeko helburua. Baina nik oso garbi dut, Hezkuntza departamentutik hau ez dela helburua, beste modu garbian esanda, hau Euskalerrria ez denez, euskalduntzearen bidea, si-nemesnik gabeko asmoa da.

Egun dagoen eredu organigrama da egokia, Nafarroa oso-an euskaraz ikasteko aukera ez baitu baimentzen. Baztanean onar-tutakoa Ttipi-tapan irakurri on-

doren, errespagarria izan daite-ke, baina nik neronek, ez dut onar-tzen, ene ustetan kasu konkretu bati, besterik ez baitio «soluziorik» ematen.

Hor, ustez eman den malguta-suna ez dut fidagarritzat ematen, egungo egoerak ez baitu horrela pentsatzeko motiborik ematen. Atal askotan ikustaraz daiteke (cu-rriculum erabilera, adibidez) eta hemengo kasua amuaren mo-duan erabiliko da, besteak beste, euskarazko hezkuntzaren aldeko-ek kontra izan ez ditzaten. Edo gure artean iritzi bateratua izan ez dezagun. Hemengo egoerak, mal-gutasunaren aitzakian talka egiten du, adibide moduan Sarriagurenen ematen den egoerarekin, non eus-karazko ereduak ezin daitekeen ezarri, eta gazteleker eta atzerriko hizkuntzak indar handiagoa du-ten. Eta berria ez delako, aipatu gabe ezin utzi, egun Nafarroa oso-an, nahiz eta horrelako asmorik izan, Hezkuntza Departamentu-ko eskola guztietan ezin daiteke euskaraz ikasi. Baina, ingelesa le-hentasuna izan den eredu ez da zonifikazio sailkapenetan sar-tuko... Zergatik ote?

Nahi duenak uler beza! Amua prestatu dute baina, Til-ek gu xu-rrupatu aurretik, zereginik badu-gu.

Mikel Illarregi. Aresoko eskolako irakasle-zuzendaria.



7°
5°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alkiza.** Herriko jaiak antolatzen dituen Festa Batzordearen bilera 22:00etan Kultur Etxean.
- **Tolosa.** Mahai-ingurua Oteizari buruz, bere lagunen eskutik (Iñaki Epelde, Julia Otxoa, Ricardo Ugarte...) udal batzar aretoan 19:00etan. 20:00etan Oteizari buruzko erakusketaren inaugurazioa Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Villabonako hiru gazteek Afrikan 8 hilabeteetan egindako bidaiaren diapositiba emanaldia 22:30ean Oargin, *Amafrika*.
- **Zizurkil.** *Nola lagundu haurrei ohitura osasungarriak har ditzaten?* hitzaldia A.M.Urangak eta M.A. Lorenzok Atxulondon 17:30ean.

Ikastaroak

- **Berastegi.** Loreekin lore-sortak eta apaingarriak egiten ikasteko aukera Muñagorri eskolan Susana Garcia gidatuta 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaratz azuloa, 9. 943 675118.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Ugaitz! Zure laugarren urtebetetzean zorionak etxekoan partetik.



Urte askoan!

Axier Lopetedi Saizar. Gaur 7 urte. Muxu handi bat denon partetik.



Mendoza kontu-kontari Errotan

TOLOSA • Atzoko eguraldi kaxkarraren aurrean, eskaintza ederra izan zuten Errota Haur Liburutegian. Izan ere, Miriam Mendoza aritu zen 3 eta 6 urte bitarteko haurrei ipuinak kontatzen. Eta eskaintza honi

probetxua ateratzen jakin zuten dudarik gabe, gela toperaino bete baitzen, haur nahi guraso ugariekin. Algara ugari egin zuten guztiek ere Miriam Mendozari esker. I.GARCIA

berriarekin

Munduko
ZINEMA
euskaraz

Best film:
Boroboro3 Mountain
Ekuldeko promesak
Gizakien seme-aitabak
Ezaburuko plane
Lorezin leiala

Maitasun istorioak,
zientzia fikzioa,
akzioa...
kulturrekino zinemak

Otsailaren 28tik aurrera,
larunbatera, zure kioskoan BERRIarekin

+ 4,90€

Harpidedunentzat: biEsuma 0504 19.40€
Eskaintza egutia: 943-29.42.45

Aukeratu eta zure kioskoan BERRIarekin euskaraz **berria**

eskerrik asko

www.aralar.net

ezkerreko **alternatiba** abertzalea **aralar**